



XIV Encuentro de  
Comunidades Autónomas y  
Cooperación para el  
Desarrollo.

Extremadura 2021

Autonomia Erkidegoen  
eta Garapenerako  
Lankidetzaren XIV.  
Topaketa.

Extremadura 2021

XIV Trobada de  
Comunitats Autònomes  
i Cooperació per al  
Desenvolupament.

Extremadura 2021

XIV Encontro de  
Comunidades Autónomas  
e Cooperación para o  
Desenvolvimento.

Extremadura 2021

## **AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN XIV. TOPAKETAKO BATERAKO ADIERAZPENA, EXTREMADURA 2021**

**1. Pandemia, bere efektuak eta erantzunak.** Adierazpen hau sinatzen dugun erakundeak, autonomia-erkidegoek egiten duten lankidetzaren arduradun garenez, jabetzen gara etorkizuneko zenbait belaunaldik beste edozein zirkunstantziaren gaineretik beren garaia definituko duen eta beren etorkizuna zehaztuko duen muturreko shock bati egin behar diotela aurre. Gure belaunaldiarentzat, historiaren norabidea aldatu zuen gertaera gisa oroitua izango da Covid19ak eragindako katastrofea. Honako lerro hauek idazten ditugun unean, 250 milioi pertsona infektatu baino gehiago izan dira urte eta erdi pasatxoan estatistika ofizialaren arabera, eta haietatik 5 milioik galdu dute bizia. Gure planetako txoko eta adin-tarte guztiak hartzen dituen tsunami epidemiko bat da, giza mugikortasuna eta munduko jarduera-ekonomikoa geldiarazi duena, eta oraindik kalte askoz ere handiagoa egingo duena indarra galdu aurretik. Izurrite batek bezala jardun du garapenaren adierazleen gain, desperekotasun- eta pobrezia-arrakalak handituz, eta jasangarria ez den eredu baten egitura-gabeziak agerian utziz. Gainera, inpaktu handiko beste lehen tasun sanitario batzuk atzera botatzen ditu koronabirusak oraindik ere, hala nola haurren txertaketa, eta malariaren eta GIBaren aurkako programak, egoera honen aurretik ere larrialdi zirenak. Ehunka milioi ikaslek etenda ikusi dute beren hezkuntza, eta eskolatik kanpo geratu daitezke, bereziki neskek, haien eskolatzeta betiere kalteberagoa baita. Laurogeiko hamarkadako urteetako krisialdia gogorarazten duen proportzioko krisialdi bati egin behar diote aurre kontinente osoek. Hilabete hauetako datuak metatzen diren neurrian, lekuak, generoak, etniak edo pertsona bakoitzari dagokion talde sozialak tragedia hau gainditzeko edo, besterik gabe, tragedia horretan erortzeko posibilitateak zenbateraino mugarrizten dituzten ikusten ari gara.

Herrialde guztiak erasan dituzte kateatutako krisialdi hauek. Baina herrialde guztiek ezin izan dituzte bermatu babes-sare eta erreminta berak kolpetik babesteko eta kolpearen ondoren suspertzeko. Txertoak, diagnostikoak eta tratamenduak masiboki baliatuzetik hedatze fiskal irmoraino, Europar Batasunak, Estatu Batuek eta munduko beste eskualde aberats batzuek Bigarren Mundu Gerraren berreraikuntzaren ondoren ikusi gabeko ahalegina egin dute. Haatik, munduko beste eskualde batzuetan, ez da gauza bera gertatzen ari arrazoi ugariengatik, eta arrazoi horien artean dago krisialdiei aurre egiteko bitarteko eta baliabideen banaketa desberdina. Ezin dugu onartu desproporzio lizun bat gertatzea krisialdiaren susperraldian, legatu etikoa baldintzatuko duen eta datozen urteen etorkizuna zehaztuko duen desproporzioa.

Gainera giza eskubideen bermean atzeraldia gertatzen ari dela erakusten diguten diskurtsoa eta ekintzak ari gara ikusten. Kalteberatasuna eta inpaktua eragiten ari da egoera hori giza eskubideak defendatzen dituzten erakunde eta pertsonetan, demokrazia egiazko, inklusibo, garden eta parte-hartzaile bat lortzeko mekanismoak sendotzea saihesten duten ekintzekin.

**2. Nazioarteko lankidetzaren erantzun gisa.** Adierazpen hau sinatzen dugun erakundeek arrakala hori ixten laguntzeko nazioarteko lankidetzak duen ezinbesteko rola aldarrikatzen dugu. Orain inoiz baino gehiago, gizabanakoen, elkarleen eta erakundeen arteko elkartasuna da erronka erkideei ekiteko modu inteligentea. Nazio Batuetan 2015ean planeta osoan garapen jasangarri baterantz aurrera egiteko adostutako agendak jarraitu behar du izaten berreraikuntzarako eta susperraldirako bide-orria, eta sustatzen duen garapenerako aliantza, aldiz, konpromiso global horiek lortzeko metodoa.



XIV Encuentro de  
Comunidades Autónomas y  
Cooperación para el  
Desarrollo.

Extremadura 2021

Autonomia Erkidegoen  
eta Garapenerako  
Lankidetzaren XIV.  
Topaketa.

Extremadura 2021

XIV Trobada de  
Comunitats Autònomes  
i Cooperació per al  
Desenvolupament.

Extremadura 2021

XIV Encontro de  
Comunidades Autónomas  
e Cooperación para o  
Desenvolvimento.

Extremadura 2021

Gainera, garai honetako garapenerako lankidetzako politiken diseinua eta magnitudea pandemiaren funtsezko hiru irakaspenen oinarriaren gainean definitu behar dira:

Lehenengoa zera da, oinarrizko zerbitzuak –osasuna baliatzeko eskubidetik hasita– eta zerbitzu horiek bermatzen dituzten erakundeak biztanleei arreta eta babesa emateko aukera nahigarri bat baino askoz gehiago direla. Hilabete hauetako esperientziak zera erakutsi digu, nazio eta ekonomien segurtasuna zenbateraino dagoen pertsonen segurtasunari eusteko duten gaitasunaren menpe, nazio horien mugen barruan zein kanpoan.

Bigarrena zera da, garapenaren erronken kudeaketa justuago eta inteligenteagoa esparru guztietako agente eta administrazioak inplikatzeko dituen hura dela, politika publiko irmoek orientatutakoa. Gure erakunde autonomikoek erakutsi dute ezinbestekoak direla krisialdiaren kudeaketan, herritarrei eman beharreko informazioan, eta familien euste sozial eta emozionalan.

Hirugarrena, aldiz, zera da, erronka hau ezin dela inola ere modu isolatuan kontuan hartu. Ezein naziok ezin dezake izan seguru egoteko itxaropenik beste nazioak seguru ez dauden bitartean, eta pertsonen osasuna ere ezin daiteke planeta baten osasunetik bereizi, planeta horren narriadura izan baita erregaia pandemiaren suan, hain zuzen ere. Krisialdi sanitario globaletan —hala nola ingurumen-arlokoetan, finantzarioetan eta bestelakoetan—, elkarrekin igeri egiten dugu edo elkarrekin hondoratzen gara herrialdeak, pertsonak eta planeta bera.

Horrek guztiak finkatu egiten du lankidetzaren ezinbesteko rola eta, guri dagokigunez, lankidetzaren horren barruko lankidetzaren deszentralizatuarena. Elkartasunak eta batera lan egiteko gaitasunak ahalbidetu digu erantzun farmakologikoak errekor-denboran garatzea, osasun-zerbitzuak zati batean finkatzea edo larrialdi humanitarioari erantzutea. Hondoan zein formetan, autonomia-erkidegoen elkartasunak bere balio erantsia erakutsi du baliabide finantzarioak, gaitasun teknikoak eta esperientzia instituzionala beharrezkoak diren testuinguru batean. Aliantzak eginez eta gaiari buruzko ezagutza erakutsiz. Kudeaketa publikoko esperientziak partekatuz udalerritarloan eta eskualde-arloan. Eragile berritzaileagoi eta ameslariagoi –lurraldeen dinamikak eraldatzeko gai direnei– laguntzeko arriskua beren gain hartuz. Ideologiaz haratago, trabarik gabe eta herritarrekiko modu hurbilagoan, pertsona guztien aurrerabidean laguntzeko, gure sentimendurik onenak indartzeko eta eragile guztiak deituak izan garen 2030 Agendaren adostasun-bidea sendotzeko balio hirukoitza du lankidetzaren modu honek.

2020ko maiatzean, pandemiaren askotariko ondorioak susmatu besterik egiten ez genituenean, autonomia-erkidegoak eta lankidetzaren toki-arloko funtsak elkartu egin ginen "Krisialditik lankidetzaren bidez irtengo gara" adierazteko. Urte eta erdi honetan bizitza oso bat joan da, baina printzipio berei helduta jarraitzen dugu. Horregatik guztiagatik, autonomia-erkidegoen lankidetzaren deszentralizatutik

## KONPROMISO HAUEK HARTU DITUGU:

- A) **Erakunde arteko koordinazioan aurrera egitea.** Baterako eta etengabeko koordinazio-prozesu baterantz aurrera egiteko konpromisoa, lankidetzaren deszentralizatuko eragile guztien artean, eta eragile horien lankidetzaren estatuko eta Europako agentziekin. Horrelako politika publiko garrantzitsu eta konplexu batek eskatzen duen kalitatea, kohesioa eta eraginkortasuna bilatzen dugu. Era berean, koordinazio-tresna berriak bilatuko ditugu zenbait sektorekin izan



XIV Encuentro de  
Comunidades Autónomas y  
Cooperación para el  
Desarrollo.

Extremadura 2021

Autonomia Erkidegoen  
eta Garapenerako  
Lankidetzaren XIV.  
Topaketa.

Extremadura 2021

XIV Trobada de  
Comunitats Autònomes  
i Cooperació per al  
Desenvolupament.

Extremadura 2021

XIV Encontro de  
Comunidades Autónomas  
e Cooperación para o  
Desenvolvimento.

Extremadura 2021

beharreko lankidetzan, hala nola osasunaren sektorearekin edo genero-berdintasunaren sektorearekin. Posible den lekuetan, gure erakundeen gaitasun tekniko, sozial eta instituzionalak mobilizatu nahi ditugu.

- B) **Gure lankidetzaren kalitatea hobetzea.** Horretarako, espezializazio propioaren bilaketan eta gure lurralde propioen barruan lehentasun politikoekin lerrokatzeko bidean aurrera egingo dugu. Era berean, 2030 Agenda herrialde bazkideetan kokatzen lagunduko dugu, krisialdi honen nazioarteko erantzunari lankidetzaz deszentralizatu espainiarrak egindako ekarpen bereizgarria baliaraziz. Aldaketak sartu behar ditugu gure erakundeen kultura politiko eta administratiboan. Lankidetzaren balioa indartu nahi dugu giza eskubideen urraketan salaketa eta haiei emandako erantzun gisa. Garapen Jasangarriko 17. Helburuak gonbidatzen gaituen aliantzen dibertsitateari eta aberastasunari erantzun nahi diegu, baita kudeaketa errazago eta malguago bati ere.
- C) **Herritarrak gizarte justuagoak lortzeko inplikatzeko.** Herritartasun global bat eta gizarte-eraldaketa lortzeko hezkuntzarekiko konpromisoa lankidetzaz deszentralizatuaren nortasun-ezaugarri bat da, eta ezinbesteko bitarteko bat gizarte justuagoak lortzeko.
- D) **Aurrekontu-konpromisoan aurrera egitea.** Gure lankidetzari gainditu behar ditugun erronken maila berean dagoen indar finantzarioa emango dion aurrekontu-efortzu batekiko konpromisoa.
- E) **Txertaketa-prozesuan laguntzea.** Autonomia-erkidegok nazioarteko txertaketarekin dugun konpromisoa adierazi nahi dugu, eta horretarako eratu dugun fondoaren bidez 2.649.400,00 euroko ekarpena egingo dugu.